

KRONIKA-GOGOETA-KRITIKA



EUSKAL KONFEDERAZIOA ETA EKB-REN ARTEKO AKORDIOA

Joan den ekainean sortu zen Euskal Konfederazioa Ipar Euskal Herrian, euskalgintza eta euskal kulturgintzaren bateragunea, ordurarte lanean ziharduten Pizkundea eta Deiadar-en oinordeko modura¹. Sortze prozesu horretan EKBko ordezkariak gonbidaturik izan ziren. Ekainean bertan EKBk elkarlanerako proposamena bidali zion Konfederazioari hiru punturen inguruan:

-«*Bi elkarguneok elkarri informazioa bidaltzea, bai bakoitzaren ekimenei buruzkoa, bai bakoitzaren esparru geografikoan euskalgintzarako interesgarri gerta daitekeenari buruzkoa*». Ez da ahaztu behar EKB teorian nazio mailako erakundea izan arren, praktikan bere iharduera Hegoaldera mugatuta aurkitzen dela.

-«*Euskal Herri osoan gauza daitezkeen ekimenetan elkarlanean ihardutea. Proiektu zehatzen inguruan gauza liteke puntu hau, beti ere elkargune bakoitzeko zuzendaritzek alde zuzenetik aztertu eta onespena emanaz gero*».

-«*Aurreko bi puntuak bermatzeko, bai eta elkarren dinamika egokiago ezagutu eta ulertzeko, elkargune bakoitzak bestearen zuzendaritzan ordezkari izatea -oraingoz entzule gisa-*».

Ekainean bertan ere Konfederazioak proposamena aztertu zuen «eta osoki

onartu». Irailaren 15ean izan zen lehen aldiz EKBko ordezkariak Konfederazioaren zuzendaritzaren bileran eta irailaren 22an Konfederazioko EKBrean.

Akordioaren hirugarren puntuari garrantzi berezia ematen dio EKBk. Izan ere, euskalgintzak betiko hutsunea izan du hegoaldeak batetik eta iparraldeak bestetik jokatzea ekinbide asko eta asko bateragarriak eta bateratzeko komenigarriak izan arren. Ez du horrek esan nahi, jakina, mugaz alde bateko eta bestekoen arteko lankidetzaren hutsa izan denik, hainbat eta hainbat adibide bai baitago. Baina euskararen berreskurapenerako euskalgintzaren estrategiari dagokionean, hutsunea erabatekoa izan da orain arte eta oraindik gaur egun ere halaxe da: nazio ikuspegitik egindako diagnosi sakonik ez dago, lehenak eta helburu mailakatuak falta dira, eta baliabideak (ekonomikoak, giza baliabideak eta antolakuntza aldetikakoak) zertan eta nola erabili behar diren ere nazio ikuspegitik aztertzea falta da.

Esan gabe doa Konfederazioa eta EKBren arteko akordio honek ez duela besterik gabe arazo larri hori konponduko, baina azpimarratu beharra dago nazio mailako estrategia finkatzen hasteko aurrepausoak izan daitekeela, bi erakundeak zabaldu den bide horri ekiteko gauza baldin badira behintzat.

1) Zenbaki honetan bertan irakur daiteke Mixel Oronozen Euskal Konfederazioaren gaineko artikulua 67. orrialdean.

EAE-KO ADMINISTRAZIOA EUSKALDUNTZEKO PLANGINTZAREN BERRIKUSKETA

Plangintzaren balorapen ofizialaren aurrean EKBk honako hauek azpimarratu zituen prentsan:

-gure prestutasuna azaldu, balantze horren inguruan, eta batez ere aurrera begirako irizpideetan gure iritzia emateko

-plangintzaren metodologian erabilpen guneak izendatu eta finkatzea izan behar du helburu, azterketa soziolinguistikoak finkatu lehentasunen arabera

-plangintzaren inguruko eragileen atxikimendu maila handitu behar da: politikariak, langileak eta euskalgintza.

DATUAK

Prentsara zabaldutako datuek azterketa sakona behar dute, gertatutakoaren ikuspegi zuzena izan nahi badugu, ildo politiko bat zurizetik haratago. Hurrengo BAT alean izango da horretaz azterketa berezirik. Hala ere, alde esanguratsu batzuk ukitu nahi genituzke:

-Oso kezagarria da Osakidetza, Ertzantza eta Estatuako Administrazioaren euskalduntze plangintzarik ez egotea, gizartearekin harreman zuzena duten neurrian lehentasunezko administrazio sailak izanik.

-Funtzionario kopuru garrantzitsua aritu da euskara ikasten azken urteotan, batzuek plangintza barruan eta beste askok plangintzatik kanpo. Haurtatik 7.000tik gora egiaztatu du Hizkuntz Eskakizunen bat. Plangintza betetze maila askoz altuagoa izan da hasierako hizkuntz Eskakizunetan altuetan baino, eta honek erakusten du goi funtzionarioen artean planaren betetze maila eskasa izan dela, atal horren garrantzia ezinbestekoa izanik plangintzaren arrakastarako.

Bestalde, sindikatuek salatu egin dute plangintza beraiekin batera kontatu gabe aplikatu dela, eta arbitrarietasun, diskriminazio egoera eta irregulartasun asko izan dela. Horregatik estatistiken gainetik negoziazioa eskatzen dute, orain artekoari dagokionez (egiaztatu ez duten langileen egoera) zein aurrerabegirakoari.

Gaur eguneko erabilera maila handitzeko oztopo nagusia barne eskaerarik ez egotea dela diote langile gehienek, eta hizkuntz eskakizuna egiaztatu arren funtzionario askok erdaraz diharduela salatzen dute langile gehienek ere.

POLITIKARIEN JARRERAK

Aginteko alderdi politikoek ideia kontrajarriak dituzte (PNV eta PSOEk zehazki) eta horrek izugarri baldintzatzen du garapena: PSOEko buruzagiek behin eta berriro adierazten dute plangintzaren helburua ezin dela izan euskara lan hizkuntza bihurtzea, euskaraz eskatzen duenari bere hizkuntzaz erantzutea baizik.

Politikarien ardura plangintzarekiko ez da garbi ikusi, eta administrazio zati diren neurrian dagokien ardurari erantzun beharrean aurkitzen dira alderdi politikoak, funtzionarioen eta, oro har, herriaren ahaleginari eredu on bateskainiz.

Politikari eta administrarien prestutasuna behar-beharrezkoa da administrazioarekin iharduerak euskaraz burutu nahi ditugunon ahaleginak alferriko suerta ez daitezen. Izan ere, gaur oraindik euskaltzaleok geure hizkuntz eskubideak zapuztuta aurkitzen ditugu hainbatetan. Kasu horiek bere horretan usteltzen hasi gabe, administrazioak heldu, eta konponbidean jartzeko erantzukizuna dauka: Ertzantza barruko euskararekiko jarreran ez al da posible eragitea? Osakidetzan ezin al da martxan jarri tokian tokiko egoeren arabera neurri sorta behin behinekoa? Errenta aitortpeneko inprimakiak euskaraz salgai estanku guztietan egotea hain zaila al da? Gasteizko seinalizazioak euskaraz ere jartzeko Euskal Herrian Euskaraz-ekoen salaketa jarri beharra al dago?....

ERABILPENA ARDATZ

Erabilpena dugu erronka, eta horri heltzen hasi beharra dago, horren aurrean egon daitezkeen jarrera politiko kontrajarrien gainetik, gizartearen gehiengoaren borondatea eta onartutako legeak horretarako beta ematen dutelako. Hasteko ikus dezagun Donostiako plangintza proposamenak, zeinak udaletxeko 7 administrazio atal euskaldun izendatzea proposatzen duen prozedura egoki baten bidez, sortu duen eztabaida zertan bukatzen den, aurrekin garrantzitsu bihur daitekeelako bide horretan. Era berean Bergara, Antzuolako plangintza asmoek, gauzatzekotan, ateak zabal ditzakete hainbat udaletxetan.

APEZPIKUAK ETA EUSKARA

Bilboko apezpiku berria dela eta, esames eta zalaparta handiak sortu ziren inguruetan, Xabier Arzallusek euskal herritarra eta euskalduna izan behar zuela esan zuenean. Badirudi eliztarren artean bazela lehendik ere kezkarik horri buruz, eta Bizkaian, hain zuzen, Elizbarrutiko kontseiluak landuak eta adieraziak zituen bere irizpideak apezpiku berriaren ereduari buruz. Baina Bilboko apezpiku berria ez da euskal herritarra ez euskalduna izango. Ez da, baina, Bilbokoarena bakarrik; Bilbokoarekin batera Gasteizkoa ere izendatu dute, euskaraz jakin gabe; Baionakoa kanpotarra da, eta izendatzerakoan ez zekien euskaraz, geroztik zerbait ikasia du; Iruñekoa ere kanpotarra da, eta ez daki euskaraz protestarik izan zen orduan hainbat apaizen aldetik. Bost apezpiku dira Euskal Herrian Bilboko laguntzailea

aparte; bi bakarrik dira euskal herritarrak, eta batek bakarrik daki maila egokian mintzatzeko moduan, euskaraz idazteko moduan inork ez. Arazoa, beraz, Arzallusek atera zuena baino askoz zabalagoa eta larriagoa da: ez da Bilboko apezpiku berriaren nongotasuna eta euskaraz jakitearena bakarrik.

Hemen ez gara sartuko euskal herritarra jaiotzaz edo bizitze hutsez izan behar duen ala ez Bizkaiko apezpikuak; badirudi hori ez dela garrantzikoena; hala ere, ez da inola ere normala, Euskal Herriko bost elizbarrutietatik, hiru atzerritarrak izatea, bertoko hainbat elizgizon dagoenean, bertan eta munduan. Jatorria baino garrantziko da, ordea, kultura, kargu soziala bete behar duenarentzat: bertakotua izatea, alegia. Euskal Herriko apezpikuak euskal kulturaz jantzita eta elizbarrutiko gizartearen arazoez jabetuta egotea berez bidezko ezezik, nahitaez eskatzeko da, ez eliztarren aldetik bakarrik, baita herritar guztien aldetik ere. Hemen hizkuntzaren arazoa aipatuko dugu soilik: euskara jakitearena bereziki. Gertatu den istilu eta eztabaidaren funts-funtsean euskara jakitearena dago noski, eta horixe nabarmendu izan da zuzenean behin baino gehiagotan.

Eliza Katolikoak bere autonomia aldarrikatzen eta defenditzen du indar politikoekiko eta botere estatalekiko. Eta horrek autonomiarik handiena gordetzea guztiz garrantziko izan daiteke, Elizaren ikuspegitik eta gizartearen ikuspegitik. Izatez, Eliza Katolikoa ez da erakunde publikoa gaurko Euskal Herrian; erakunde pribatua da legez. Baina ez da erabat pribatua. Bere enbaxadorea du estatuaren aurrean, estatuaren eta Eliza Katolikoaren arteko elkarrekiko ezagutza publikoa adierazten duena. Gainera diru publikotik bizi da hemen Eliza Katolikoa, neurri batez behintzat: bere azpiegiturari eusteko eta bere zerbitzu sozialak eskaintzeko: Hasteko, apezpikuek eta parrokiak apaizek diru publikotik kobratzen dute «soldata». Botere publikoek edozein erakunderi jartzen dizkiote beren baldintzaren batzuk, diru publikoak hartzen dituen neurrian. Funtzio soziala zabala beteko duten apezpikuei bertoko hizkuntza ofiziala ezagutzea baldintzatzen jartzea ez da inola ere zentzugabekeria, eta bai guztiz bidezkoa.

Baina ikuspegi juridiko-politiko-instituzional horrez gain, bada beste ikuspegirik, kontu handiagokoa oraindik, Euskal Herriko Elizari eta euskal gizarteari dagokiena. Eliza errealitate eta erakunde soziala da; eta zalantzarik ez dago Eliza Katolikoa indar sozio-kultural oso garrantziko delako Euskal Herrian: Besteren artean Eliza katolikoak bi unibertsitate ditu Euskal Herrian: Deustuko jesuitena eta Iruñeko Opus-ena; gainera hainbat eta hainbat eskola pribatu erlijiosoaren eskuetan daude; baditu irratiak ere. Bestalde, euskal herritarren parte oso esanguratsua kristau fededuna eta praktikantea

da, eta horren eraginpean bizi da. Hau asko ari dira katekesia hartzen eta milaka asko doaz igandero mezatarara; eta herritar gehienek dute oraindik noizbehinkako harremanik Elizarekin: bataioak, jaunartzeak, ezkontzak, hiletak direla eta. Elizaren barruan edo inguruan mugitzen den jende hori guztia ez da inola ere bazterreko taldea gaurko gure gizarte sekularatuan ere.

Euskal eliztarrek dute aurrenik eskubidea beren apezpikuek euskara jakin dezaten; eta hori lortzeko eginbidea dute gainera. Harrigarria da, erreakzio handiagorik eta erantzun biziagorik ez izana kristauen aldetik, Baionako, Iruñeko, Gasteizko eta Bilboko apezpikutarako apaiz ez-euskaldunak izendatzearen aurrean. Alferrik da esatea, Diozesira etortzean euskaraz ikasiko dutela esatea; lotsa eman beharko lieke hori esate hutsak, edozein kargutarako aurretik prestatuta egotea eskatzen baita gaur egun (agian kristauek ez lieke onartu behar gainera horrelakorik, apezpikuak ez baitatoz euskaltegian euskara ikasten «denbora galtzera», eta bai beren erantzukizun pastoraletan beren orduak eta lana ematea).

Baina Euskal Herriko apezpikuak euskaraz jakitea ala ez jakitea ez da kristau herritarren kontua bakarrik, euskal herritar guztiena baizik. Batetik, euskararen berreskurapen prozesuan guztiz garrantzizkoa delako Elizak euskara erabiltzea: Elizaren barruan edo inguruan ari diren euskaldun horiek guztiak euskaraz ari ez badira, erdaraz ari dira. Ez al du horrek zeresanik Euskal Herria euskalduntzearekin eta euskararen berreskurapenarekin?

Bestalde, Euskal Herrian diharduen erakunde soziala da Eliza; eta gizarte honetan eragina izan nahi du, eta badu eraginik. Elizaren beraren eta teologiaren aldetik egin daitezkeen gogoetak aparte, Euskal Herria euskalduntzeko bidea hartu duen gizarte honek eskubidea du horrelako erakundeari eskatzeko, euskararen berreskurapen dinamikan murgil dadin, eta horretarako oztopo gerta ez dadin. Horretarako, berriz, bide okerra da bertoko Elizaren buruak euskaraz ez jakitea. (Erakunde marginala balitz erlijiozko sektaren bat edo bere eskubide pribatua luke agian nahi duena egiteko, bere marginaltasunean jarraituz).

Kezkagarria da zein erreakzio txikia egon den apezpiku ez-euskaldunen arazo honetan euskararen berreskurapenaren alde lanean diharduten erakunde herritarren aldetik. Bietako bat adierazten du horrek: begirune handiegia diotela Elizari, eta bestelako erakunde sozialei eskatzen dietena Elizari eskatzen ez direla ausartzen, ala Elizaren indar sozio-kulturala mezipretxatu egiten dutela, euskararen berreskurapenari dagokionez behintzat. Bigarrena bada, ikuspen eskasa eta errealismorik eza dela esan daiteke; politikariek

halako garrantzia ematen badiote apezpikuaren izendapenari, eragin soziala (eta politikoa) daukatelako da. Euskararen alde diharduten erakunde sozialek ez daukate Elizaren mundua alde batera uzterik: euskararen berreskurapenaren plangintzan, bai erakunde publikoenean eta bai herri-mugimenduarenean ere, leku garrantzizkoa bete behar du Elizaren sektoreak. Areago, Elizari berari bere plangintza egin eta bete dezan eskatzeko ordua da, barruko bizitzan eta kanporako harremanetan euskararen ezagutza eta erabilera normaltzeko. Politikarien kritikapean ezezik, herritar ez kristauen kritikapean behar du Elizak, hizkuntzaren berreskurapenari dagokion gai behineneko horretan; aurre-aurrenik, ordea, kristau euskaldunei dagokie horri buruzko eskabideak ipintzea beren ministroei, apezpikuarengandik hasita.

Gainera, kritikarik ez eskabiderik ezak, lasaitu baino kezkatu egin beharko luke gehiago Eliza bera, zera adieraziko bailuke horrek: gizarte honek ez duela kontuan hartzen Eliza, Herriaren berreraikuntzaren proiektuan eta bereziki euskararen berreskurapenaren plangintzan behintzat. Gizarteak bere proiektuetan aintzakotzat ez hartzea, gizartearen bazterrekotzat ikustea edota baztertera uztea da seguruenik mingarriena gizarte horretantxe bere lekua eta eragina izan nahi duen edozein erakunderentzat.